

Betikoa. Gaueko azken ametsaren bukaera ikusteko nagoela, esnatu nau berriro ere amak. Lehen bost minutuak jeiki ez-jeiki pentsatzen jardun ondoren, begiak lausotu egin zaizkit, berriz ere loaren eskuetan eroriz. Ez da harritzekoa bost bat minututara hanketan hotza nabaritzen hastea, goizero bezala amak izarak kendu bait dizkit ni konturatzeke. Beste biderik ez balego bezala, ohetik jeiki egin naiz, ezer askorik ikusten ez badut ere. Oinak zurezko zoruan finkatu ditut eta ia ohetik jeikitzeke ere indarrrik gabe zutitu naiz halako batean. Izan ere, esnatzea eta jeikitzea ez bait da gauza bera. Ahal dudanean hormari helduz eta oinak arrastaka daramatzadala, komunera patiotik sartzen den argia izan litekeen zerbait nabari dut parean. Itsu-itsu noa hara, bai bait dakit goizeroko irudipena dela eta aita ari dela komunean bizarra mozten.

—Egunon gutxienez.

—Egunon.

—Motel, hire aurpegia ikusita, lorik egin ez duala esan zitekek...

—Mmmmrbbmm...

Goizeroko erantzuna. Tapa jasotzea mirariz gogoratuta, komunean esertzen naiz. Beno, eseri baino gehiago, nire burua komunaren gainera erortzen utzi dut. Aita irtetea, zutik jartzeko indarrak baliatzen naiz bonbari tira egiteko. Ispiluaren aurrean jarri naiz, baina badakit alferrik egin dudala, ez bait naiz begiak irekitzeko gai harik eta urez busti arte. Egin beharrekoak egin ondoren ispilura begiratzean eta nire ileak ikustean, haizeak gogor jotzen duela esan liteke. Ileak harro-harro ditut, eta badakit, jakin, gero ere nahikoa lan izango dudala orrazia erdi-bustita tximak zuzentzen. Pentsakizun hauetan murgildurik nagoela, arreba zaharrenak kanpotik egiten didan oihuak atera erazten nau komunitik.

—Gaurko al haiz?

Goizeroko erantzuna ez errepikatzeagatik ez diot zirkinik ere egiten eta jadanik mantak ongi harroturik lurrean ikusten ditudan aterantz hurbiltzen naiz. Jo! Gaur ere ez dut arropak ohean jazterik izango! Honek, amorru bizian jartzen nau, izan ere, oso gogoko dut arropak ohe barnean aldatzea. Besterik ezean, jolas bat

gehiago da. Amak mahaiaren ondoko aulkira bota dizkidan galtzei so egiten diet, berriz ere aurreko egunekoak jantzi nahi ez banitu bezala. Halere, nire niki gogokoena hartzeko beta izan dut (badakizue, urdina eta berdea, Andorran erositakoa) eta grabitate-indarrak baliaturik (Fisikako maisuak esango lukeen bezala) jertsea sartu dut goitik behera. Leihoaren ondoko kaxoitik (hirugarrena, hain zuzen ere) mukizapia eta galtzerdiak hartzen ditut, amak harrapatuko ez nauelakoan ohearen gainetik jauzi egiten dudalarik.

—Zenbat aldiz esan behar diat hori ez egiteko! Egunen batean beheko etxebizitzan azalduko haiz! Hik, ehun aldiz esanda ere, ehun eta batgarrenean berdin egingo huke...

—Azkenekoa, ama...

Irratiaren hotsaz gidaturik sukaldera iristen naiz eta beti bezala hor ari da arreba sagarra zuritzen. Nik, nahiz eta kilo batzuk galtzea hain gaizki ez etorri, betiko bi opilak eta gaileta-mordozka galanta hartu ditut Cola-Caorekin jateko. Berak, esnea eta hiruzpalau frutale...

—Hi haiz, hi zakua...


—...

Opilaren gainazala larrutu ondoren, bi zatiak batera irensten ditut. Bigarrenari heltzean, zatitzeko betarik hartu ere egin gabe, hura ere bapatean barneratzen dut.

—Hi, sei gaileta ere nahikoa izango ditut.

—Segi sagarra jaten...

Lehen zazpiak jaten ditut, gainerantzekoak zopak egiteko gordetzen ditudalarik. Bukatzean, izkinan dakuskidan oinetako zuriak hartzen ditut, aurretik aipaturiko galtzerdiak ate ondoko aulki txikira botaz. Beti bezala, aulkiaren ertzean bermatzen dut ezker oina eta goizeroko sermoia entzuteko bestetarako ez dit balio. Guztiz prestatzean, komunerantz ematen dut pausoa eta lehen aipaturiko tximak zanpatzeari ekiten diot. Lehenengo orraziaz, gero eskuaz... azkenik burua bustita amaitzen dut. Lehen utziriko hondarrak begietatik kendu nahian hasten naiz, ez bait dut hortzak garbitzeko pastaren zapore gogorrik oraintsu gozatutako ahoan sentitu nahi. Beraz, denborapasa nagoela, berriz ere arreba



badatorrela somatzen dut eta komunetik irten naiz.


Bezperan prestatu gabe utzitako eskolako poltsa betetzen hasten naiz eta horretan dihardudala, ordularia ikusten dut gau-mahaitxoan. Aspaldian jantzi gabeko katea ere jazten dut leptik behera eta egun horretako ordutegia errepatatzeaz bat, gelatik irteten naiz. Sukaldean amak lehen atsedenaldirako prestatuta utzi didan otartekoa hartu dut eta komuneko atean jarri naiz arrebaren zai. Piska bat lehen txoago ipurdia galdu beharrean zebilen eta orain ileari azken ikutuak ematen lasai-lasai. Ez dut ulertzen! Bera irteteaz batera ama gelatik hoska ari dela entzuten dut.

—Hortzak garbitu al dituk?

—Bai! (Ea sartzen diodan...)

—Ea ikusi...

Alferrikakoa da jadanik ihes egitea. Goizero bezala, antzemango ez duelakoan ahoa ireki-



tzen diot eta begiak zabaltzean goizeroko beso luzatua dakusat, komunera ko norabidea adierazten didan esku bat muturrean duela. Joan, pasta piska bat bota hortzeskubilan (usaia antzemateko adina), eta hortzak nola-hala igurtzi ondoren, zai daukadan arrebarekin batera atetik irteten naiz.

Lehen erreakzioa garbia da; eskaileretan argia piztea, alegia. Hori ez da oso beharrezkoa, baina neguko goiz ilunetako ohitura urte guztirako geratzen da. Eskailerak ahal bezain azkar eta arrapaladan jeitsi eta atariko ate handia zabaltzen dut. Gaur ere ez dago ezer berririk. Errepidea gurutzatu ezin dugunez, gu geu gauden bidetik abiatzen gara, nahiz eta hurrean dugun zebrabidea arriskutsuagoa izan. Bidean aurrera goazela, segituan konturatzen naiz ez dela ezer aldatu atzotik gaurra; betiko jendea, betiko bidea, jendearen betiko isiltasuna, betiko trafiko-zarata, betikoa. Aldapan behera ere

erritmo bera daramate nire hankek eta inguruko horma sendoak begiztatzen ditut. Aurreraxeago dagoen lurpeko tunel motzeko argiak piztuta daude, beti bezala, eta hauek sortzen dituzten itzalen efektuari begira nagoela, goizeroko tren pasatzen da goitik. Hau da dudarik gabe, ongien esnatzen nauena.

Ondorengo maila nekez igo ondoren, semaforoa berdetu arte itxaroten dugu eta ondoren aurrera jarraitzen. Zubia iragaitean, ur lohitsu marroia ikusten dut azpian, gure herriko toki-ri hitsenak sortzen dituen ur-korrontea. Arreba, zai duen lagunarengana joaten da eta ni bakarrik geratzen naiz goizeroko bidea egiteko. Kirol dendan dauden gauzak ikusiz, lasai-lasai noa eta ez naiz konturatzen goizero buruaz kaso egiten didan jendea ondoan doakidanik. Hankak arrastaka daramatzat eta badirudi liburuek ere gehiago pisatzen dutela. Une batean ia karpeta erori ere egin zait. Aldapa neketsuan gora noala, egiten ari diren etxe berriei so egiten diet, baina nik ez diet aurrerapenik nabaritzen. Hori, oso normala da, izan ere, denbora asko ikusi gabe egon ezean, dena berdin dagoela iruditzen bait zait.

Bidean aurrera noala, ea lagun bat atzetik datorren jakiteko edo, burua jiratzen dut eta hala ez dela ikustean, berriz ere burua makurtu eta aurrera jarraitzen dut. Kale-ertzeira iristean, ea autobusean etortzen direnak han dauden begiratzen dut eta berriz ere aurrera egin beharrean aurkitzen naiz. Goizeroko bi azken aldapak ikustean maratoia bukatzeaz dagoen atletaren gogoetak datozkit burura eta *sprint*-ari ekiteko prestatzen naiz, ikastolara heltzeko gogoak areagotzen zaizkidalarik.

Langa nagusia pasatzen dudanean, 47 eskailera-mailak birkontatzen hasten naiz eta *Portxea* deitzen diogun tokira heltzen naiz. Han daude denak, lehenengo tokatzen den klaseko galderak egiten edo ea harako hura ikasi behar al zen komentatzen. Besteak berriz, bezperako saskibaloi-partiduaz, edo gauerdiko filmaz... Eta ni ere konturatzen naiz, haien artean sartu orduko eta gai inozo horietaz hizketan hasi orduko konturatzen naiz, dudarik gabe, hau ere egun bat gehiago izango dela...■